



BARREN
TOKIKOM

Herria mozorrotuta



Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

AROSZTEGIAK



aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutx-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com



Olaso Industriegunea, 17 behega
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com



Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arnatagia Carpinteria



Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com



AROSZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriegunea, 1-O/ 1-P

943 740 547



ELEKTRIZITATEA



elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com



San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238



Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzaj@gmail.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



electricidad
PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Ibargain 17, AC behega
Tel.: 943 202 208
Faxa: 943 205 045
20600 EIBAR

Hemiko Enparantza 5
Tel.: 943 033 535
20850 MENDARO



ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA



ERREFORMA ETA LEIHOAK

Urasandi, 22 behega - Elgoibar

Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurarekin ere
lan egiten dugu.



Jardiñeta, 25 behega
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA



ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behega
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com



Hemiko Enparantza, 10 behega
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerotaiturgintza.com
www.pagoerotaiturgintza.com



Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com



San Roke 10-A, behega B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskafnet.net

TELLABIDE

ITURGINTZA



Azpigoeta 7 behega - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzatefabbide@hotmail.com

ZUBIZARRETA

instalazioak

Ubitarte plaza, 5 behega
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 585
senda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
faller@pagoagasa.com
ELGOIBAR

LEIHOAK



SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosof@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA



Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen gida



NEREA GURRUTXAGA



“Zertaz mozorrotuko zara? Edo oraingo honetan zu zeu izatea erabaki duzu?”

Kaixo, Nora! Hemen datoz Inauteriak, beste behin! Pentsatu al duzu zertaz mozorrotu? Ni prestatzen nabil oraindik, egia esan. Pentsatzen jarrita, guztiok daukagu mozorro bat, besteen aurrean izateko era bat, paper bat. Giza konbentzioak direnak dira, eta muga batzuen barnean mugitzera behartzen gaituzte, horregatik behar dugu beste norbait izan, arau batzuk jarraitu, helburu batzuk bete ahal izateko. Mozorro edo maskara hori askotan aipatu izan da, zinean esaterako. Jean Renoir zinegile errealistak hori bera zioen, guztiok antzeztu egiten dugula mundua den eszenatoki honetan. Horregatik antzerkiaren presentzia izugarria da bere pelikuletan, bere ustez, eszenatoki gainean erakusten baita nolakoak garen benetan. Zinea alde batera utzita, ba al zenekien “persona” hitzak Grezian duela jatorria eta “aktorearen maskara”, edo “personaiak” esan nahi duela? Proso-

pon hitzetik dator, eta tragedia grekoetan antzezleek jartzen zuten maskara zen. Hortaz, pertsona bizitzan dugun kokapena edo papera litzateke zeinetatik norbanako bakoitzak bere burua adierazten duen. Umetatik erakusten zaigu nola jokatu behar dugun besteen aurrean: beti ez dela egia esan behar, itxura ona eman behar dela eta abar. Esan dezakegu pertsona gutxiren aurrean kentzen dugula maskara, egoera eroso bat behar dugulako horretarako, eta askotan maskara horren azpian ere makillajea jartzen dugu, guztia agerian gera ez dadin. Besteen gustuko izan behar horrek eramaten gaitu mozorro hori eraikitzen, eta askotan itxura hori egin behar frustrazioa eragiten digu. Edo alderantziz, kosta egiten zaigu gure burua den bezalakoa onartzea. Berrito botako dizut galdera, Nora, zertaz mozorrotuko zara? Edo oraingo honetan zu zeu izatea erabaki duzu?



NORA KORTABERRIA



“Zeinen polita den izatea, ezberdintasuna bizitzea, berezi sentitzea”

Aupa, Nerea! Aurten Inauteriak etxetik kanpo igarotzea egokitu zait, Finlandian nago-eta bi hilabetez. Hori dela-eta, mozorrotzeko aukerarik gabe geratuko nintzela pentsatu dut orain arte, baina zure galdera horrek jokoz kanpo utzi nau.

Mozorroaz galdetu didazu baina zuk aipatutako maskarek buruz erantzungo dizut. Hemen izan naizen hiru aste hauek hausnartzeko aukera eman didate, aurrean dudana errealtatetik begiratzeko. Ikuspuntua izan da guztiaren gakoak, zeinen hori baita benetako egia baldintzatzen duena. Kultura-maskara aztertutako, eta baita aurkitu ere. Begiratzeko era, jokatzeko era, izateko era, izaera. Herrialde ezberdinetan bizitzeak duen eragina, lur eremuaren araberako eguraldia eta beren kultura berezia. Kale-kantoitik behatuz guztiak aurrera doazela ikusi daiteke, atzera-pausoak existituko ez balira bezala. Baina ez da ezer entzuten, isilik dabilta oinez, ilaran, zinta-mugikor baten gainean hegan. Bakoitzak maskara ezberdin bat du,

baina denek berdinak dirudite. Eta haien atzean ezkutuan dagoen guztia estaltzen dute, bakoitzaren aurpegian, mara-mara dagoen elurak geruza zuri bat eratuz. Beste aldean gu gaude, euskaldunak, eta ilehori hauen jarrera guztiz arrotza iruditzen zaigu. Dena dela, ohartu gabe guri ere maskara zuria eratu zaigu, eta zinta-mugikor horren parte bihurtu gara.

Finlandiako hotza omen da honen eragilea. Auskalo.

Begi-bistakoa da kolore biziak alaitzen dutela ingurua, Espoo-ko paisaia grisak eta Tallin-eko pastel-koloreek ez dute zer ikusirik. Hala ere, bietan daude maskara zuriak. “Inor bagara begiratzeko modua gara. Inon bagaude begiratzen digutenen begiradetan gaude”. Irati Jimenezek aipatzen zuen *Nora ez dakizun hori* liburuan eta hala da, zenbateko garrantzia duen begiradak.

Hortaz, aurtengo Inauteriak maskara zuria kentzeko aprobetxatuko ditut, eta ni neu izaten saiatu. Zeren, zeinen polita den izatea, ezberdintasuna bizitzea, berezi sentitzea.

ANDER MUJIKA

Musikaria



Polonia

taldeari aurkeztu ondoren, abandonatutako tren geltoki bat erabiltzeko baimena eskuratu zuen.

Kontzertua eskaintzeaz gain, hiria, bertako jendea eta haien kultura ezagutzeko aukera izan genuen hiru egun iraun zuen bidaiari. Bizikletak hartu eta hiria erakutsi ziguten borondate onenaz, garagardo bat hartzeraren eraman eta zerbait jateko lekuri proposenak proposatzen zizkiguten. Guk gure herriaren inguruko kontuak kontatzen genizkien bertakoei eta haiek bueltan

beraienak, zopa bero bat hartzen genuen bitartean.

Urte urte, lan pila bat eginez, hiriburutasuna konpartitzen zuen Euskal Herriko beste kultura horretara gerturatzeko ahalgina egiten zuten gazte poloniarrek. Apaltasunez, kuriositatez eta esfortuz bertako proiektu txiki hark herriari eskaintzen zionaz maiteminduta geratu ginen.

Horrelako proiektu gutxi ikusi dugu tamalez Donostian. Horrelako gauzen ordez, lelo hutsalez apaindutako eskaparate garestiak (660.000€) muntatzen ditugu Donostian. Argi eta soinuen efektuz betetako emanaldi harroak direnak antolatuz, telebistaz emateko pentsatuta dauden ikuskizunak eskainiz.

Horra esanguratsua iruditu zaidan detaile bat: telebistako kazetariak Donostiara gerturatu eta Poloniako beste hiriburu horren izena ba al zekien galdetzen zien kalean hainbat pertsonari. Lautik lauk, kale. Ez zuten jakin erantzuten. Zuk badakizu?

*“Horrelako gauzen ordez,
lelo hutsalez apaindutako
eskaparate garestiak
(660.000€) muntatzen
ditugu Donostian”*

2014ko ekainean Polonian kontzertu berezi bat eskaintzeko aukera izan genuen. Donostiarekin batera Europako Kultur Hiriburutasuna partekatzen duen hiriburutik gonbidatu gintuzten. Euskal Herriari eta bere kulturari eskaintako BASK izena duen festibalean parte hartzeko. Bertan, hiruzpalau egunez, kontzertu, hitzaldi, zine proiektio eta bestelako emanaldien bidez, gure kulturaren inguruko erakustaldi bat antolatzen dute urtero. 2013an hasi zuen proiektua bertako gazte talde batek, 2016ko lan-



BARREN

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskal kulturaren topagunea

LAGUNTZAILEAK:

elgoibar
1821-2021

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRIK ASKO

Aurten ere, eskerrak eman nahi dizkiegu Sahara Mendebaldeko errefuxiatuen alde egindako janari bilketa lagundu diguten elgoibartarrei. Herritarrei jarritako otarreak janariz mukuritu bete dituztelako; BM eta Eroski (Sta. Ana, B. Ezenarro) supermerkatuei; IMH eta Herri Eskola ikastetxei; Etxeberria Farmazia eta BARREN aldizkariari.

Bestalde, zera jakinarazi nahi dugu: Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deban egindako bilketetan; 5.500 kilo: janari, helduentzako pardelak eta botika batzea lortu dugula. Mila esker.

Eibar-Sahara Elkartea

► MILA ESKER

Gabon Zahar ferian jarritako txosnan herritarrek emandako erantzunarekin pozik gaude. Asko dira laguntza eman digutenak eta haien guztien ahalgina txalotu nahi dugu. Eskerrik asko Amarori, Armueta Harategiari, Benito Harategiari, Beristain Logistika Banaketari, BESARI (Bernardo Ecenarro), Debe-

meni, Elgoibarko Udalarri, Eroskiri, Maialen Astigarragari eta Ziarda Harategiari. Eskerrik asko zuen ahalgintzari. Era berean, antolaketa lanetan eta egunean bertan parte hartu zuten gurasoei eta profesionalei ere gure esker ona adierazi nahi diegu.

Herritik herrirako jarduera honen bidez lortutako dirua herrian ekimenak garatzen erabiliko dugu, hala nola, krosa eta Pilota Eguna.

Mila esker.

Ikastolako Guraso Kontseilua

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENez edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.

LED 32" ONWA 32HD

USB 2.0 - HDMI

229€



EDESA BITROZERAMIKA URBAN VT330S

BISELATU
A3 SU + 1 OSO HANDIA
TOUCH CONTROL



EDESA LABEA URBAN H150AX

MULTIFUNTZIOA
HERDOILEZINA



**Biak batera
325€**

Eskaintza espresa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Aita Agirreko eraikina berritzeko proiektua aukeratzeko lizitazioa onartu du Elgoibarko Udalak

Aita Agirre eraikina eraberritzeko prozesuak aurrera jarraitzen du. Berritzeko lanak hasi aurretik, proiektua idatziko duen talde tekniko bat kontratatu beharko du Udalak. Kontratazioa lizitazio bidez egingo da. Elgoibarko Udaleko Gobernu Batzarrak joan den astean onartu zuen lizitazioa.

Lizitazioaren oinarriko aurrekontua 200.000 eurokoa da (BEZ kanpo), baldintza teknikoaren eta baldintza administrazioaren arabera. Lehiaketara aurkeztu nahi dutenek otsailaren 16ra arteko epea izango dute haien proposamena aurkezteko. Atzo, eguna, aurkezteko asmoa duten zenbait lehiakidek eraikina barrutik ikusteko aukera izan zuten.

Goitik behera eraberritu

Maiatzean edo ekainean esleituiko du Elgoibarko Udalak proiektua eta horren ostean, aukeratutako enpresak 22



asteko epea izango du proiektua erredaktatzeko.

1925ean eraiki zuten Aita Agirreko eraikina goitik behera eraberrituko badute ere, hein batean fatxada nagusia mantendu beharko da. Kultura eta euskarare-

kin lotutako hainbat ekipamendu hartuko ditu. Proiektua erredaktatu ondoren esleitu ahal izango dira eraberritzeko lanak, datorren urtean. Aurreikuspenen arabera, 2,8 milioi euroko kostua izango du eraikina berritzeak (BEZ gabe).

2-dean B-rotuz ekimenak 13.000 kilo material bidali ditu Elgoibartik Lesbosera, gerrateetatik ihesi dabiltzan pertsoneri laguntzeko



2-dean B-rotuz ekimenak 13.000 kilo material bildu ditu Elgoibarren, negu honetan gerrateetatik ihesi dabiltzan errefuxiatuei bidaltzeko. Guztira, 1.354 kaxa batu dituzte 44 paletetan eta hori guztia bi kontainerretan sartu dute. Elgoibarko herriak emandako materiala bidali ondoren, jasotzeko ziztzen itsulapikoak jasotzeari ekin zion taldeak. 2-dean B-erotuz ekimenak eskerrak eman dizkie herritarrei erakutsitako elkartasunagatik.

Errenteriako adibidearekin amaitu dira 'Bakea eta Bizikidetz' jardunaldiak



Eskuinean, Sabino Ormazabal, eguazteneko hitzaldian.

Sabino Ormazabalen *Memoria partekatu baterantz* hitzaldiarekin amaitu ziren eguaztenean *Bakea eta Bizikidetz* jardunaldiak. Aurreko astean Marixabel Lasa eta Edurne Brouarden mahai-inguruak herritar askoren interesa piztu zuten moduan, hitzaldi honek ere elgoibartar asko erakarri zituen Kultur Etxera.

Sabino Ormazabalek Errenterian abiatutako esperientziaren berri eman zuen bere hitzaldian. Herri horretako alderdi guztiek *Memoria partekatu baterantz* izeneko dokumentua onartu zuten. 1956tik 2012ra Errenterian izandako motibazio politikoko giza eskubideen urraketek eta indarkeria-ekintzeki buruzko txostena da, memoria partekatu bat eraikitze bidean emandako "lehen pausoa". Errenterian izandako bizitzeko eskubidearen urraketak, pertsonen osotasun fisiko eta psikorako eskubidearen urraketak, ikerketa sakonago bat behar duten kasuak edota beste indarkeria kasu eta sufrimendu batzuk biltzen ditu. Ormazabalen arabera, Errenteria biolentzia handia jasan duen herria da, baina aldi berean herritarrek elkarrekin bakan bizitzea desio dute.

Arnaldo Otegi, martxoaren 1ean kalera



Arnaldo Otegi 27 egun lehenago irtengo da kartzelatik, Auzitegi Nazionalako Espetxe Zaintzako epaitegiaren arabera. Berez, martxoaren 28an jarri zioten irteteko data, baina behin-behinean aske zenean epaitegira sinatzera joan behar zuen hamar egunetatik bat deskontatu diote. Otegi 270 egunetan joan zen, gutxienez, auzitegira sinatzera.

Maalako zubia, autoentzat asteburuetan itxita

Asteburuetan Maalako zubia autoentzako itxita egongo dela jakinarazi du Elgoibarko Udaltzaingoak. Joan den asteburuan bezalaxe, zapatu eguerditik domeka iluntzera bitartean garajeetako autoak baino ezin izango dira zubitik pasatu. Neurri honen helburua da oinezkoentzako leku gehiago eta hobeak izatea.

Txankakua elkartearen zozketako sari batzuk jasotzeke daude

Txankakuako Gabonetako zozketaren zenbaki irabazle guztiak oraindik ez dira agertu. Elgoibarko merkatariaren elkarteak gogoratu du otsailaren 7an amaituko dela sariak jasotzeko eguna. 94.345 zenbakia oraindik ez da agertu 500 euroko saria jasotzera (ordezkoa, 80.251). Horrez gain, 87.854 zenbakia (ordezkoa 43.442) eta 77.123 (ordezkoa, 56.759) ere oraindik ez dira ehuna euro kobratzera azaldu.

Enpresaren bat martxan jarri nahi dutenei Debegesara jotzeko eskatu diete

Enpresaren bat martxan jartzeko asmoa duten elgoibartarrei euren bulegoetara jotzeko eskatu die Debegesak (943 820 110). Garapen elkarte horren aholkularitza bidez, hogeit hamar enpresa berri sortu ziren 2015ean Debabarrenean, horietako hiru Elgoibarren. Debegesaren arabera, Elgoibarko hiru enpresa berrik diru laguntzak jaso zituzten iaz Udalaren eskutik. Lanbidek ekintzaileei zuzendutako diru-laguntzen artean, Debegesak 41 eskaera onartu zituen eskualdean, eta horietatik lau elgoibartarrak izan ziren (1.000 eta 1.950 euro bitarteko laguntzak jaso zituzten).

“Azalean zibilizazioen arteko talka dago, baina sakonean diru kontua”

▶ MIKEL LARBURU APAIZ MISIOLARIA

Aita Zuria – Afrikako misiolari taldea, beren janzkeragatik izen horrekin ezaguna– da Mikel Larburu apaiz zumaiarra. Aljerian misiolari lanetan 40 urtez egon ondoren, Zumaia eta Madril artean egiten du bere bizimodua. Musulmanekin, batik bat gazteen heziketan aritu da lanean. Han bizi izandako esperientzia oinarrituta Islamak Europan sortzen duen ardura eta errespetua izaten ditu hizpide beste apaizekin eta herritarrekin. Elgoibarren, Kalegoengo San Bartolome elizaren 300. urteurrena ospatzeko egingo dituzten ekitaldien artean Mikel Larbururen hitzaldia izango da bat: otsailaren 8an, Musika Eskolako auditorioan, 20:00etan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Arg.: Jabi Leon

♦ Nola erabaki zenuen misiolari moduan Aljeriara joatea?

Zumaiarra naiz eta nire senideak itsasoan ibilitakoak izanik nire lehen bokazioa ere hori zen. Baina seminarioan ikasten ari nintzela Aita Zuriaren taldeko misiolari batek hitzaldi bat eman zuen. Amaieran, kapera bateko irudian hau irakurri nuen: *Irten zure herritik eta zoaz nik bidaliko zaitudan herrira*. Esaldi horrek jo ninduen, aita zuri sartu eta segituan erabaki nuen nire bizitza basamortuan zegoela.

♦ Aljerian 40 urte egin zenituen misiolari moduan. Zein izan zen zure lana?

Apaiz-langile izatea zen nire helburua. Han apaiz modura lanik ez nuen, kristaurik ez baitago, beraz, laguntza emanez bizi izan nintzen. Lanbide heziketako eskoletan aritu nintzen irakasle. Soldadura irakatsi nien petroleora bideratutkoa hodiak... eginez. Basamortuko jende gaztea langilea izatea nahi genuen hango

konpainietan, eta ez langileak kanpotik ekartzea.

♦ Baina urte guztiak ez zenituen leku berean pasa.

Adrarrera bidali ninduten, Maliko mugara. Batez ere diseinua irakatsi nuen eta urterik gehienak han pasatu nituen.

♦ Han lan egitea berezia ez ezik gogorra ere izango zen, ezta?

Urterik ederrenak basamortuan pasa nituen. Probintzia bat sortu zuten eta dena egiteko zegoen eraikuntzak, administrazioa... Zortea izan dut hango gazte askori ofizioa emateko..

Gero, Aita Zurién buru aukeratu ninduten Aljeria eta Tunisiarako. Gerra zibila hasi zen eta sei urte egin nituen terrorismoaren bihotzean. Heriotzak izan ziren baita gure kolektiboko kideetan ere. Gu 200 misiolari ginen (apaiz, moja...) eta 19 akabatu zituzten.

♦ **Zuk zeuk pentsatu al zenuen zuri gertatzeko arriskua zenuela?**

Bai. Ni arduraduna nintzenez, Aljeria guztian bueltaka ibili behar izaten nintzen distantzia luzeetan eta esnatu orduko ardura hori izaten nuen. Baina errepidera irten eta autoak ikusten nituenean bizitza zegoela sumatu eta tarteko nintzenez gertatu gero, gertatuko zen... aukera egina nuen eta sekula ez dut atzera egin. Nire borondatea zen apaiz izatea eta jaungoikoaren grazia izango nuen. Kongregazioekin oso gertu egon beharra neukan.

♦ **40 urte eta gero hona bueltan etorrita, nola ikusten duzu hango egoera?**

Aljeriatik gaixorik etorri nintzen, baina hara bueltatu egin nintzen eta gainera ez neukan ordura arteko ardura, gazteekin nengoen. Gero arriskua handia zela ikusi eta Europara itzultzea erabaki nuen. Belgikara, Bruselara, joan nintzen eta bulego bat sortu nuen Islamaren jarraipena Europan egiteko. Urte eta erdi pasa nituen hango erakunde eta elkarteekin, hango musulmanekin lanean. Oso garai ederra izan zen, asko bete ninduen, baina gero iktus bat izan nuen eta itzuli egin nintzen. Orain, Madrilen denbora asko pasatzen dut gaixoak zaintzeko ardura baitaukat. Bestalde, askok eskatzen dit han bizitako esperientziak kontatzeko, orain Islam kontuak hain modan daudenez, hitzaldiak ematen ditut. Batzuetan pentsatzen dut horrelako dramen aurrean nire hitzek baliorik ba ote duten, baina hori bizitakoak garen ez... badu bere indarra.

♦ **Beste apaiz batzuei Islama gertatzeko ikastaroak ere ematen dizkiezu.**

Bai. Gehienak Donostiako seminariotik pasatutakoak gara apaizak edo apaiz izandakoak, nire adin ingurukoak. Nik, Belgikako egonaldian Islamaren eta Europan arteko lotura hori landu nuen eta horren berri ematen diet hilean behineko

jardunaldietan. Jakintsu asko dago eta esperientzia handikoak. Konparaketak egin dituzte nola fundamentalismo bat sortzen den terrorismo bihurtzeko. Hor mekanismo asko daude, bai soziologikoak, bai psikologikoak... eta gauza batzuetan beraiek ni baino gehiago dakite.

♦ **Zuk esana da musulmanei eta Islamari beldurra agertzen diola askotan hemengo gizarteak.**

Bai, baina hori kontuz esan beharra dago. Adibidez, gaur egun, ordenagailuekin-eta, nahi dugun guztia aurki dezakegu, beraz, kriterio asko behar da. Gaurko munduko ardura denak oso sakonak eta nahasiak dira, baina hau nola gelditu liteke? Hegazkinekin bonbardatzen dituzten herri horietan beste lan bat egin beharra dago. Horien atzetik zeintzuk dabilta? Zeintzuk ibili ziren sasoi batean? Denok daukagu errua. Amerika, Errusia, Afganistango inbasioa, Irakekoa... Nola korapilo hori berriz askatu? Abioiak eta bonbak hartzea ez da zilegia.

“Jendea pentsamolde batekin etortzen da eta mentalidadeak aldatzea ez da erraza”

♦ **Askotan ez omen dakigu bereizten erlijioa eta jarrera erradikalak.**

Azaletik begiraturuz gero, zibilizazioen arteko talka dago, baina sakonenean diru kontua. Ez da erraza korapilo hori askatzea, baina horra iritsi behar dugu. Gaur egun hainbat eta hainbat musulman dauzkagu gure artean, pena izango litzateke esperientzia eder hori –nirea Aljerian izan zen bezala–, baztertzea edo galtzea. Aberastasun handia dago kulturak, erlijioa eta ideologiak nahasten direnean, integratzen direnean.

♦ **Siriatik ihes datozen errefuxiatuak dira hizpide aspaldion. Zuk nola ikusten duzu egoera?**

Guda guztietan errefuxiatuak beti izan dira. Batzuek onartu gintuzten gu, beste batzuek ez hainbeste, klase guztietakoak daude. Gaur egun asko dira etortzen ari direnak eta ondo bertakotzea ez da erraza. Ahalegina egin behar da lehenengo guda hori bukatzeko nola edo hala. Bestela ez dago mugak ixterik, nonbaitetik azalduko dira. Beste arazo bat da guda hori nola ari den finantziatzen. Finantziazio horiek ere bukatu behar dira. Mafiak ere ikaragarritzko lana egiten ari dira. Europako polizia esan du kontuz ibili behar dela 10.000 ume desagertu direla Greziako eta Turkiako mugetan eta mafia horiekin inork ezin du eskua sartu hor? Azkenik etortzen direnak onartu egin behar dira, eskuzabal izan behar dugu naiz eta badakidan ez dela erraza. Horretarako batzuk lagundu egin beharko genieke, gauzak erraztuz, noizbait beren herrira bueltatuko diren esperantzarekin; hori ametsa izango litzateke baina...

♦ **Sinestuna izan ala ez justizia da azpimarratu beharrekoa?**

Bai. Justizia ez da gauza negatiboa, oker dauden gauzak nola edo hala zuzendu behar ditu. Baina askotan ez dugu aurrera eramaten pentsaera hau: ezberdintasun hauetan aberastasun handia dago. Euskadin, ikusten dugu nola goazen gure demokraziarekin eta gure gauzekin eta askotan hau odol berria izan liteke. Baina horretarako lan handia egin behar da integrazioan bien aldetik. Ez dut esan nahi gauzak nahi genukeen bezala ez badoaz gure errua denik, jendea pentsamolde batekin etortzen da eta mentalidadeak aldatzea ez da erraza, pazientzia pixka bat behar da. Gauzak ez dira urtebetean aldatzen. Eskoletan, esaterako, nik Zumaian ikusten dut kanpotik etorritako umetxoek ni baino hobeto egiten dutela euskaraz. Baina nagusiagok, unibertsitateko ikasleek, langileek, denok pazientzia behar dugu, baina aktiboa ez bakarrik zain egon aldaketa etorriko delakoan.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Kaleetako baldosak solte eta hautsita: "Herriko hainbat kaletan baldosa bat baino gehiago solte dago, batzuk hautsita daude eta beste zenbait, askatu edo apurtu dir-lako, euren lekutik kenduta. Euria egiten duen egunetan baldosen azpiko aldean edo falta diren baldosak utzitako hutsune edp zuloetan pilatzen da ura eta oharkabean baldosa horiek zapaltzerakoan behin baino gehiagotan ura irten eta prakak ziprztindu eta zikindu izan zaizkit. Euririk egin ezean, berriz, estropezu egin daiteke baldosa horiekin trabatuta. Beraz, eskatu nahi nuke baldosak aldatzea edo konpontzea gehiago horrelakorik ez gertatzeko".



Kultur Etxe aurreko eskultura kolokan: "Bada urtebete baino gehiago hainbat gurasok eskatu genuela Kultur Etxearen kanpoko aldean dauden Andraderen eskulturetako bat konpontzea, izan ere, kolokan baitago. Denbora asko pasatu den arren inork ez digu kasurik egin eta ez dute konpondu, beraz, lehengo egoera berean jarraitzen du. Ume asko ibiltzen da inguru horretan jolasean eta badira eskulturara igotzen direnak ere. Gurasook uste dugu egunen batean istripu larriren bat gertatzeko arriskua dagoela. Beraz, berriz eskatu nahi genuke eskultura hori konpontzea eta ez mugitzeko moduan jartzea".



Giza Eskubideen parkea erabilgarriago egin: "Herri erdigunean ibiltzen naizen elgoibartar bat naiz eta Giza Eskubideen parkeak garai batean zuen edertasuna galdu duela iruditzen zait. Mahai eta aukiek betetzen dute gaur egun parkeko zati handi bat, eta horrez gain, zabor-ontziak daude, baita kartoizko kaxak ere. Horrek jendea parkean lasai eta eroso ibiltzea oztopatzen du eta hori zuzena iruditzen ez zaidanez, eskatu izan dut aldaketak egitea edo neurriak hartzea. Beraz, nahi nuke, parke hori herriko gune publikoa den heinean jendearen erabilerarako berreskuratzea eta lehen zuen itxura izateko ahalik eta txukunen mantentzea".



Oinezkoen ikuspena hobetu dute: "Gabriel Kurutzelaegi kalean, igogailuaren aldamenean, zebrabide altxatua dago. Hala ere, hainbat gidarik ez dute abiadura errespetatzen eta azkar pasatzen dira handik. Noiz edo noiz izan dut sustorik zebrabidetik pasatzera nindoala autoa ikusi ez eta ia autoren batek harrapatu navelako. Izan ere, zebrabide aldamenean aparkalekuak daude eta lehenengoan autoa aparkatuta egonez gero, ikuspena oztopatzen zuen. Orain, ordea, lehen aparkaleku horretan lorontzi bat jarri dute autoek ez aparkatzeko eta oinezkoek autorik datorren ala ez hobeto ikusteko eta hori eskertzekoa da, ea susto gutxiago izaten den hemendik aurrera".



Inauterietarako 10 gomendio

Ez duzu argi zer egin behar duzun asteburu honetan? Ez dakizu zer mozorro jantzi? Planekin zalantzak dituzu? Ez urduritu, lasai egon. Hartu itzazu minutu batzuk aholku havei erreparatzeko eta zoaz kalera, ondo pasatzera.

1. **Saia zaitetz originala izaten.** Badakigu, ez da erraza baina askotan ideia sinpleenak izan ohi dira bikainenak. Atentzioa ematen dizun norbaiti errepara diezaiokezu (azaleko hiru lagunek egin duten modura) edo gogoko duzun pertsonaia bati erreparatu.

2. **Bila ezazu erosotasuna,** ordu batzuk pasatakoan eskertuko duzu. Ez erabili ileorde edo arropa deserosorik. Komunera erraz joan ahal izateko mozorroa jantzi. Ondo pentsatu dirua, giltzak edo telefonoa nola eramango dituzun

3. **Inprobisa ezazu etxean dituzun arropa eta trapu zaharrek,** ezer pentsatu eta prestatzeko astirik ez baduzu. Argi dago horrela ez zarela, seguruenik originala izango, baina ondo pasatzeko balioko dizu. Azken batean, zertarako dira Inauteriak?

4. **Sinuosek gaur gauerako antolatu duen Umetokitik kontzertua** aukera ona da gaur ganean lagunekin musika ona entzuteko eta dantza egiteko. Inauterietako barixakuan antolatzen duten 20. kontzertua da gaurkoa.

5. **Mozorrotu zaitetz zure txakurrekin batera.** Zure lagun leial hori ez ezazu etxean laga, ondo pasa ezazu berarekin. Adogi elkarteak txakurren eta jabeen mozorro lehiaketa antolatu du Maalako parkean.

6. **Egin ezazu makillaje ikastaro espresa.** Bihar arratsaldean, gaztelekuan, Inauterietan ondo makilatzeko truko guztiak erakutsiko dizkizute.

7. **Neurtu indarrak Mendaron.** Gaztetxeak biharko antolatutako oso oso itxura ona dauka, leher eginda amaitu nahi ez baduzu, poliki-poliki ibili zaitetz.

8. **Atxutxikaraokea sekulako plana da** etxeko artista txikientzat. Jendaurrean kantatzeko aukera handirik ez dugu izaten normalean. Atera dezagun gure talentua!

9. **Barre algarak egin Kiki, Koko eta Moko pailazoekin.** Pirritx, Porrotx eta Marimotsots ez diren beste pailazo bikain asko dago Euskal Herrian.

10. **Probatu Eguren orkestraren ahalmen sendagarriak.** Esan agur erreumari eta beste minei dantzaldian eta jubilatuen etxeko mozorro lehiaketan. Zientifikoki frogatuta dago.



► Santa Ageda eskean jasotako 3.000 euroak Bizi Poza txarangari emango dizkiote

J oan zen zapatuan ibili ziren Mendaron Santa Ageda eskean baserriz baserri eta kaleetan hiru taldetan banatuta. *Mañukorta*, Asier Lazarobas-ter Agarre, Aitzol Urain *Bidaburu*, Beñat Ugartetxea, Beñat Lizaso eta Iñigo Zubiaurre *Beitxi* aritu ziren kopia kantuan eta trikitilari Iñaki Kortaberri, Jon Larrañaga, Igor Rey, Lean Esnaola, Amaia Sukia, Iñigo Loiola, Idurre Arriola eta Maite Olazabal. Baserri eta kaleetan gogoz eta estimu handiz hartu zituzten eta gosai zein hamaiketako ez gain, propina ederrak bota zituzten zakura. Santa eskeko batzordeak jakinarazi duenez, 3.000 euro batu zituzten eta Bizi Poza txarangari emango diote diru hori. Udaberri-rako 25. urteurrena ospatzeko ahalik eta egun ederrera antolatzen saiatuko dira. Musika tresna berriak erosteko ere baliatuko dute dirua. Argazki gehiago:

www.barren.eus



Igogailua egin behar dute Herriko Enparantzatik Garagartzara bitartean irisgarritasuna hobetzeko

Mendaroko Udalak 2016rako onartutako aurrekontuen arabera inbertsioen atalean hirigintzara bideratuko dute kopuru handiena, irisgarritasuna hobetzeko lanetara batik bat. Irisgarritasuna bermatzeko lanik esanguratsuenen artean dago, hain zuzen ere, Mendaron egingo duten igogailu publikoa, Herriko Enparantza Garagartza auzoarekin lotuko duena. Udaletxearen atzeko aldean egingo dute igogailua, eskailerak dauden tokian.

Mendarok lau auzo nagusi dauzka guztiz ezberdinak eta guztietara ahalik eta modu erosoenean iristea da Udalaren helburuetariko bat. Herriko Enparantza dago erdigunea eta handik Mendarozabalerako lotunea nahiko ondo dago, bere garaian espaloietan hainbat beheratze egin zituztelako eta ibilgailuen abiadura murrizteko koxkak jarri. Azpilgoetara joateko ere badago zubia eta ez dago aldapa handirik.

Maldak saihestu

Arazoa dago, ordea, Herriko enparantza eta Garagartza artean. Batean sekulako aldapa dagoelako eta bestean desnibela txikiagoa baina ibilbide luzeagoa. "Kontuan izanda Garagartzako kale nagusietan gutxi gorabehera 300 pertsona bizi direla eta han daudela San Agustin kultur gunea –aisialdi ekintzak eta ikuskizunak egiten dira eta musika eskola ere bertan dago– eta haurreskola pentsatzen dugu beharra badagoela eta igogailuak erabilera handia izango duela", dio Sonia Garcia alkateak.

Igogailuaren proiektua biribiltzeko dago oraindik, baina udarako prest izatea gustatuko litzaieke. Kostua oraindik zehaztu gabe badago ere, 135.000 euro ingurukoa izango da.

Mendarozabalgo geltokia

Urtero bideratzen du Udalak aurrekontuetako kopuru bat irisgarritasuna hobetzeko lanetarako eta aurtengo lan nagusia igogailua izan arren, beste batzuk ere egingo dituzte Udaleko Irisgarritasun Planaren baitan.

Mendarozabalgo autobus geltokian espaloia beheratu egin behar da. Alkatearen esanetan, "hor daukagun arazoa da autobusa errepidean gelditzen dela eta irtengune bat beharko lukeen arren ezinezkoa da trenbidea eta errepidea daudelako. Beraz, gutxienez, espaloian jaitsiera egin beharko dugu elbarrituentzako aukiak edo ume-kotxeak errazago pasa daitezen aukera egoteko".

Komun publikoa

Beste lan batzuk ere aurreikusita dituzte Udalean aurtengorako.



Besteak beste komun-publikoa jarriko dute Ikastolako patioan. "Eskola kirolean eta eskola orduetatik kanpo, arratsaldeetan, aisialdian jende asko ibiltzen da jolasean, beraz komunaren beharra ikusi dugu".

Inbertsioen artean dago baita ere eraginkortasun energetikoa bultzatzeko Ikastolan galdarak berriak jartzea.



2017ko egutegirako argazki lehiaketa eraikinen kanpoaldeari buruzkoa izango da

Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak eta Ongarri argazkilari elkarteak aste honetan jakinarazi dute datorren urteko egutegiaren gaia: Elgoibarko eraikinen fatxadak, leihoak, balkoiak, atak eta kanpoaldeko beste edozein elementu atera ahal izango dituzte elgoibartarrek, gero lehiaketa bidez aukeratzeko.

Lehiaketako oinarriak oraindik ez dituzte argitaratu eta udazkenean emango dituztela jakinarazi dute Ongarri eta Euskara Sailak. Hala ere, jendeak urte osoan argazkiak ateratzeko aukera izan dezan, argazki lehiaketan parte hartzeko irizpide nagusiak aurreratu dituzte.

- Pertsona bakoitzak, gehienez ere, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- Argazkiek horizontalean ateratakoak izan beharko dute, eta gutxieneko erresoluzioa 300 ppp izango da.
- Elgoibarren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izango dute lehiaketan parte hartzeko aukera, eta gutxieneko adina 16 urtekoa izango da.
- Gaia: Elgoibarko eraikinen fatxadak, leihoak, balkoiak, atak....
- Argazkiak ezinbestean Elgoibarkoak izan beharko dira, eta argazkiarekin batera, kokapenaren berri ere eman beharko da.
- Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 14a izango da.

Antolatzaileek parte hartzera animatu dituzte herritar guztiak, kamara esku artean hartu eta herriko kale eta auzoetako eraikinak argazkietan jasotzera.

Aurtengo egutegia kultura, arte eta ondareari buruzkoa da eta bera osatzeko lehiaketara 146 argazki aurkeztu zituzten.

Maitasunez Hezi elkarteak edoskitze tailerra antolatu du otsailaren 13rako

Maitasunez Hezi elkarteak edoskitze edo laktantzia taldea da, amek osatzen dutena. Haur jaioberrien amak, haurdun dauden emakumeak edota amatasunari lotutako gaiez kezkatuta dauden emakumeak animatu nahi dituzte amen arteko edoskitze laguntza tailerrera.

Tailerra otsailaren 13an (zapatua) Elgoibarko Kultur Etxean egingo dute, 11:00etatik aurrera. Edoskitzearen inguruko esperientziak partekatuko dituzte eta taldean sortzen diren kezketaz arituko dira.

Aldez aurretik parte hartzearen berri ematea eskatu dute antolatzaileek, 636 916 556 (Naiara) edo 665 733 809 (Ainize) telefonoetara deituta edo bestela emailaz maitasunez@hezihotmail.com helbidera idatzita.

'Herioiak' antzezlanaren eskainiko dute datorren barixakuan

Joxe Ramon Soroiz, Kandido Uranga eta Ramon Agirre aktoreek gerrako hiru beretanoren papera antzeztuko dute otsailaren 12an, Herriko Antzokian, 20:30etatik aurrera. Hiru pertsonaiak soldadu ohien egoitza batean bizi dira. Enrique herrera da, Gustavok agorafobia du eta Felipe maiz zorabiatzen da, buruan daukan metraila puska bat dela medio. Sarrerak Kutzabanken bidez erosteko aukera egongo da eta egunean bertan takilan ere jarriko dituzte salgai.



Etxegiña taldea bihar irtengo da santa eskean



Uteroko ohiturari jarraituz, Etxegiña taldea bihar, zapatua, irtengo da Elgoibarren kalerik kale, Santa Eskean. Hitzordua bolatokian dute, 09:00etan. Bi taldetan jardungo dute makil hotsekin eta koplaka. Talde batean Kepa Urain koplariak jardungo du eta bestean Jesus Irizarrek. Eguerdi partean San Lazaro egoitza bisitatuko dute. 14:00etan Errosario kaleko amabirjinari eskainiko diote *Salbea*. Gero, bazkaria Baltasar elkartearen eguingo dute.

Santa Eskean batutako dirua Caritasentzako izango dela jakinarazi du Etxegiña taldeak.

Kepa Acero surfleri eta abenturazalea, otsailaren 18an Herriko antzokian

Ongarri Zine Klubak Kepa Acero surfleri algortarrari buruzko emanaldia eskainiko du otsailaren 18an, 21:30etik aurrera. Acerok berak emanaldian parte hartuko du. Surf munduan oso ezaguna da, batez ere egin dituen abentura eta erronkengatik.



Bosko eguna ospatu zuten irakaskuntza ertaineko ikasleek joan den barixakuan



Ikasketak alde batera laga eta festarako eguna izan zuten urtarrilaren 29an (barixakua) irakaskuntza ertaineko ikasleek Elgoibarren. Alabaina, ez ziren ezer egin gabe egon. Era guztietako proba eta kirol lehietan hartu zuten parte ikasleek eta baita irakasleek ere, goizean goiz hasita. Besteak beste, lasterketak, tortilla lehiaketak, futbitoak, sokatira, mus eta tute txapelketak, antzerkia, umore saioak, euskal bertso txiste emanaldia, zerrafroga eta abar ospatu zituzten.



Decak eta Beristainek zaleen aurrean lortu zuten Euskal Liga jokatzeko

Eskubaloiak protagonismo handia izan zuen joan zen asteburuan Elgoibarren. Barixakutik domekara bitartean 18 eskubaloizko partida jokatu ziren. Horieta asko Euskal Ligako Bigarren Fasea jokatzeko igoera faseetako partidak izan ziren. Kadete mailako igoera fasean Deca Elgoibarren partidak irabazita. Usurbil, Urnieta eta Escolapios taldeei irabazi ostean lortu zuen igoera Decak. Jubeniletan Tekniker Eibar Eskubaloizko partidak irabazita. Beristain Banaketak Sanloko taldea sailkatu zen bigarren postuan, bi partida irabazita. Honenbestez, Debabarrenako taldeak igoera fasea jokatzeko sailkapena. (Asteburuko partidetak emaitzak eskuineko zutabearen).

60+ egitasmoak jarraipena izango du otsailaren 16tik aurrera

60 urtetik gorako pertsonen ongizatea eta bizitza kalitatea sustatzen dituen 60+ programa berriro martxan jarriko dute otsailaren 16an. Mintxetan eta IMH kiroldetxean izango dira saioak martitzenetan eta eguenetan; 10:00etatik 11:15era talde bat, eta bestea 11:15etik 12:30era. Saio horietan hazkuntza pertsonala landu nahi duen 60 urtetik gorako edonork hartu dezake parte. Horretarako, baina, Olaizaga kiroldetxean izena eman beharko da, otsailaren 12a baino lehenago.



A. Garate
 Era guztiak igeltzeritza lanak egiten aditua
 angelmgarate@gmail.com
 Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

atzak
 taberna
 San Roke 28, behea
 943 531 301 / 646 443 183
 Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu



Mintxartela

...u zituzten Olaizaga eta IMH kiroldegietan. ...bar taldea izan zen nagusi, jokaturako hiru ...taldeak lortu zuen lehen postua, hirutik hiru ...taldeek lortu zuten Euskal Ligako bigarren

Nora Kortaberria Espainiako selekzioara

Zarauzko Aiala taldean jokatzen diharduen Nora Kortaberria eskubaloi jokalaria elgoibartarrak junior mailako Espainiako eskubaloi selekzioaren deia jaso du. Aurten Errusian jokatuko den Munduko txapelketarako sailkatze fasea jokatu aurreko prestaketak egingo dituzte Guadalajaran (Espainia), otsailaren 7tik 11ra bitartean. Zentral postuan jokatzeke deitu du Sagrario Santana hautatzaileak.



Emaitzak

FUTBOLA

Tolosa 2 – Haundi 1
Santo Tomas Lizeoa 1 – Elgoibar 0 (1. erreg.)
Burmendi 1 – Elgoibar 0 (Jubenila)
Elgoibar 2 – Beasain 2 (A Kadeteak)
Elgoibar 10 – Arizmendi 0 (B Kadeteak)
Orioko 1 – Elgoibar 3 (Oho. inf.)
Mundarro 1 – Elgoibar 1 (Inf. txiki)

ARETO FUTBOLA

San Juan 6 – Concepto Egile 1 (Naz. B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur Elg. 68 – Ordizia K.E. 39

ESKUBALOAIA (EUSKAL LIGA, FASEAK)

Escolapios 26 – Urnieta 33 (Kadeteak)
Urnieta 23 – Usurbil 30 (Kad.)
Usurbil 32 – Escolapios 25 (Kad.)
Deca 31 – Usurbil 23 (Kad.)
Deca 30 – Urnieta 24 (Kad.)
Escolapios 28 – Deca 33 (Kad.)
Urduliz 28 – Egia 38 (Jubenilak)
Egia 24 – Eibar 32 (Jub.)
Eibar 38 – Urduliz 17 (Jub.)
Eibar 30 – Beristain 27 (Jub.)
Urduliz 18 – Beristain 32 (Jub.)
Beristain 23 – Egia 21 (Jub.)
Lauko 31 – Garlan Legumbres 26 (Sen. emak.)
Alcorta Forging Group 31 – Usurbil 26 (Senior giz.)
Cometel 27 – Pizzeria Marina Pulpo 11 (Inf. nes.)
Dario 25 – Brakys Pulpo 19 (Inf. nes.)
Ikus 15 – Aloña Mendi A 27 (Inf. nes.)
Murgil 29 – Amenabar B 19 (Inf. mut.)
Eibar 13 – Elgoibar 13 (Alebin nes.)

Martin Hernandezek Euskadiko kros txapelketa irabazi du kadeteetan

Mintxeta Atletismo Taldeko Martin Hernandez antxitxikiariak kadete mailako Euskadiko kros txapelketa irabazi zuen lasarteko hipodromoan jokatu zen Donostiako Nazioarteko 61. Krosean. Kros denboraldi aparta izatten ari da Hernandezentzat, aurreko domekan ere garaipena eskuratu baitzuen Elgoibarko Mugertza krosean. Lehiatz gainera, antolatzailerak omenaldi txiki bat eskaini zioten Fermin Arrese elgoibartarrari, krosa jokatu den 61 edizioetan beti alboan izan dutelako.



Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 26
16:30 Haundi – Zarautz
18:30 Elgoibar – Beti Ona (1. erreg.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 6
17:00 Pneumax Elg. – Pulpo (Kadete nes.)
Domeka, 7
11:00 Sukia Elg. – Aloña Mendi (Alebin nes.)
11:30 Sukia Elg. – Aloña Mendi (Alebin nes.)

LANA.....**Eskaerak**

Arratsalde, astelehenetik ostiralera adinekoak zaintzen edo garbiketetan egingo nuke lan. 631 098 995

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest, orduka. 684 318 696

Adinekoak zaindu edo garbiketa zein sukalde lanetarako prest. 616 554 004

Adinekoak zaindu eta tabernak edo portalak garbitzeko prest. 631 790 555

Adinekoak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin edo sukalde lanetarako prest. 666 380 843

Adinekoak zaindu edo garbiketa zein sukalde lanetarako prest. 677 259 560

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. 692 332 871

Adinekoak zaintzeko (titulua daukat), garbiketa lanetarako eta baserrietan lan egiteko prest. 640 209 948

Garbiketan edo sukaldari-laguntzaile lan egingo nuke, esperientzia handia dut. 659 321 517

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak orduka egiteko prest. 686 578 228

10:00-16:00 bitartean orduka edo gaez nagusiak zaintzen eta garbiketan lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. 620 258 708

Lan bila nabil garbiketean, umeak zaintzen edo tabernetan. 15 urteko esperientzia daukat. 602 146 153

Eskarmentu handiko zaintzailea lanetarako prest: etxeak garbitu, nagusiak paseatu, haiei jarraipena egin... Diplomatu. Esperientzia eta informaeak ditut. Euskalduna. 675 711 658

Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditut. 688 895 568

Lan bila nabil. 631 133 431

Lan bila nabil. 633 767 696

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest. Ikasketak eta esperientzia ditut. 671 989 434

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak orduka egiteko prest. 30 urte baino gehiagoko esperientzia dut (Elena). 660 511 781

Emakume arduratsua adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 631 748 977 edo 632 454 417

Umeak zein adinekoak zaintzenko prest. Bi edo hiru orduz arratsaldeetan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. 631 275 541

Adinekoak zaintzeko prest. Etxean bertan zein kanpoan bizi izaten. Esperientzia eta erreferentziak. Paperak indarrean. 616 328 060

Portalak, tabernak eta komunitateak garbitzeko prest. Paperak indarrean. 648 039 187

Adineko pertsonak zaintzeko eta etxeak garbiketarako egiteko prest. 617 571 210

Lana egingo nuke adinekoak zaintzen edo etxeak garbitzen orduka edota internan gaez. 633 808 931

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, gaez zein orduka. 632 687 874

Adineko pertsonak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erabateko prestasuna. 658 273 486

Eskaerak

Mahats ardote girako zerbitzaria behar da. Bidali CVa tabernara. 646 936 092

Emakumea behar da Batxilergoko 2. mailako matematika eta kimikako eskola partikularrak emateko. 634 462 336

Esperientziadun tabernaria eta sukaldari laguntzailea behar dira Elgoibarko taberna baterako. Informazio gehiago eskatzeko eta Curriculum Vitae-a bidaltzeko helbidea: tabernalan@gmail.com

Elgoibarko enpresa batek fresatzeko CNC makina baten lan egiteko pertsona behar du. 943 744 066

ETXEBIZITZAK.....**Salgai**

Etxea salgai dut Elgoibar erdigunean. Bosgarren solairua, igogailuarekin. 616 111 603

Alokairua

Etxebizitza edo gela hartu nahi dut errentan Elgoibarren edo inguruko herrietan. 688 333 713

Etxebizitza edo ganbara hartuko nituzke alokairuan bizi izateko. Logela bat edo bi. 631 098 995

Etxebizitza emango nuke alokairuan San Bartolome kalean. Altzariekin, bizitzera sartzeko moduan. Merke. 667 528 550

LOKALAK.....**Alokairua**

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

Gazteentzako lokala alokagai Kalamua 4. zenbakian. Erabat ekipatua eta segurtasun neurri guztiekin. Udaldaritanza betetzen du. Informazio gehiago telefono zenbakira hots eginda edo Gabilondo inbiliarian. 610 893 332

BESTELAKOAK.....

1980an jaiotako ena jaiapirilaren 16an. 12:00etan, Tantakan, ongi-etorri luntxa eta bazkaria Sigman. Sartu 42€ 30350007250070067518 zenbakian. Anima zaitze!



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar

943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Gure komunitatean –hiru jabe baino ez gara– hasieratik erabaki zen igogailu zerbitzua bertan behera uztea. Hau da, igogailua ez da sekula martxan egon. Nahiz eta erakina zerbitzu horrekin eraiki eta jabeek horrela erosi, gero erabaki zuten erabilgarri ez jartzea mantenu kostua saihesteko.

Bada jabe bat igogailua martxan jarri nahi duena. Eskaria egin al dezake?

Igogailua irisgarritasun neurri bat da, egitura-izaera du eraikin guztian, beraz, beharrezkoa da. Legeak dio derrigorrezkoa dela, eta ez dutela eskatuko jabeen batzarrak aurrez adosterik – Eratzeko Tituluaren edo Estatutuen moldaketan eragin ala ez-. Eraikin bat irisgarria izan dadin igogailua jartzeko edo legeak jarritako baldintzak betetzen ez dituen igogailua egokitzeko eraikinaren egituraren aldaketak egin behar badira edo estatutu zein eskriturak aldatu denen onarpena behar bada ere, kasu horietan legea malguagoa da. Mugikortasun arazoak dituen edo 70 urtetik gorako jendea bizi edo lan egiten duen etxe zein lokal baterako sartu-irtenak oztopatzen badira eta hori saihesteko aldapak egin, igogailuak jarri edo gailu mekaniko zein elektronikoak instalatu behar badira komunitatea baldintza batzuk betetzera behartuta dago ohiko gastuetako hileko 12 kuota ordaintzera beti ere dirulaguntzak kenduz.

Kasu honetan eraikinak hasieratik zuen zerbitzua zen igogailua, beraz, ez da beharrezkoa honen instalazioa onartzea. Egituraren funtzionaltasun-zerbitzua legearen arabera martxan jarri baino ez litzateke egin behar.

AHOLKUA: Igogailua martxan jartzeko nahikoa izango da erabili nahi duen jabeak idatziz eskaria egitea.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Leire!** 4 urte. Ondo pasa! Muxuak danon partez!



Zorionak, **Aimar** Blanco Gantxegi, hilaren 7xan 2 urte beteko dozuz-eta. Muxu handi bat etxekuen partez.



Zorionak, **Gari!** Etxeko artistak gaur 5 urte. Ondo pasa eguna familiaren eta batez ere Martxelen partez.



Zorionak, **Ane!** Igdanean 8 urte! Segi horrelako neska bikaina izaten. Mila muxu maite zaitugun danon partez.



Zorionak, **Arai,** 4 urte bete dituz-lako! Aitaxo eta amatxoren partez muxu potolo bat.



Bi urte bete dituzu, **sorgintxo!** Patxo haundi bat eta mila kilo zorion zuretzat, ma-itia.



Zorionak, **Eneko eta Ane,** familiako guztion partez. Asteartean 5 urte bete zenuzten eta izugarri ondo pasatu genuen.



Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Zorionak, **Nora,** hilaren 6an 13 urte. Kariño handiz familia osoak, bereziki aita-ama eta arreba Anek. Ondo pasa!

ELGOIBARKO IZARRA EUSKARA ERREFORTZUAK EMATEKO HEZITZAILEA BEHAR DU

ESKATZEN DA:

- ◆ Hizkuntzaren didaktikarekin zerikusia duten ikasketak izatea.
- ◆ Aisialdian esperientzia.

BALORATUKO DA:

- ◆ Iniziatibadun pertsona izatea.
- ◆ Izaera irekia eta aktiboa izatea.
- ◆ Gizarte integrazio ikasketak izatea.

ESKANTZEN DA:

- ◆ Ikasturteko lan-kontaktua.

Interesatuak curriculumua bidali, otsailaren 10a baino lehen, e-posta honetara:

atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus
(Naiara 943 741 626)



ORBE



**PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIETAN ADITUAK**

**Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860**

www.toldosypersiansorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

ARMAZOIA + LENTEAK 89€-TIK

**SHE'S IN
VOGUE**

Modismoa Linea
le Plus de JASANO, DEBA
VOGUE - EPERMEAL.COM



Uzuri

RPS 183/12

ELGOIBAR - DEBA
optika audio

6 ZAPATUA

08:30 Santa Ageda eskea. Etxegiña taldea. Elgoibarko kale eta auzoetan. Irteera: Bolatokiko parkean.

8 ASTELEHENA

20:00 Hitzaldia: Dialogo interreligioso-intercultural. Mikel Larburu. Musika eskolako auditorioan.

11 EGUENA

19:30 Ahal Dugu-Podemos-en Elgoibarko zirkulua osatzeko bilera irekia. Kultur Etxean.

12 BARIXAKUA

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun zentroan.

20:30 Antzerkia: *Heroiak*. Txalo produkzioak. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Point break'
5 Barixakua, 21:30
6 Zapatua, 19:00-22:15
(Jatorrizkoa azpigituluekin)
7 Domeka 19:00
8 Astelehena 21:30



'Koko dragoi txikia'
7 Domeka, 16:30

Zuz.: Ericson Core. Aktoreak: Edgar Ramirez, Luke Bracey, Teresa Palmer y Ray Winstone. AEB, 2015. Akzioa. 113 min. Johnny gazteak bere iragan errebeldea atzera utzi eta FBIrekin bat egingo du. Lapurretei buruzko kasu bat egokituko zaio eta Kaliforniara joango da. Han Bodhi eta Tyler ezagutuko ditu; bizimodua beste era batera ikusaraziko dion mutila eta maiteminduko duen neska.

Zuz.: Hubert Weiland eta Nina Wels. Alemania, 2015. Animazioa. Koko hegan egiterik ez duen dragoi hegalaria da, eta Oskar barazkijalea bihurtzea erabaki duen dragoi haragijalea. Biak ala biak lekuz kanpo sentituko dira Dragoi Uhartean. Baina Matilda kirikiñoarekin batera, sekulako abenturak biziko dituzte, eta tamaina eta forma guztietako dragoiak ezagutu.



Garbiñe del Hoyo Murua

2016ko urtarrilaren 28an hil zen, 48 urte zituela.

**Zure miña gordea
agerian adorea
zu ezagutu izana
guretzat ohorea.**

Adei eta Oxelen ikastolako lagunak

INAUTERIAK Otsailak 5, 6, 7 eta 9**Elgoibar****Mendaro****5 BARIXAKUA**

15:15-16:30 Ikastolako Euskal Inauteriak. Kalejira eta dantza saioa Kalegoen plazan (euria bada, Ikastolan).

16:30-19:30 Mozorro festa. Photocall, merendola eta mozorro lehiaketa. Sariak mozorrorik onenentzat. Ludotekan.

23:00 Sinuoserren XX. kontzertua: *Umetokitik*. Kultur Etxeko sotoan.

6 ZAPATUA

11:00-15:00 Txakurren eta jabeen mozorro desfile eta lehiaketa; eta bigarren eskuko elkartasun azoka. Adogi. Informazioa: 678 373 737. Maalan.

16:00-19:00 Inauterietako Makillajea. Makillatzaile profesionala. Gaztelekuan.

18:00-19:30 Atxutikaraokea eta ko-reografiak 2-12 urte bitarteko haurrentzat. Antolatzailea: Atxutxiamaika. Maalan.

19:30-20:45 Mozorroren eta karrozen desfilea, Mauxitxa txaranga, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik Kalegoen plazara.

21:00 Mauxitxa txaranga eta kuadrillentzako jolasak. Giza Eskubideen parkean.

00:00-03:00 Erromeria. Maalako parkean.

7 DOMEKA

18:00-21:00 Dantzaldia Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.

9 MARTITZENA

16:45 Mozorroren elkartzea. Kalegoen plazan.

17:00 Kiki, Koko eta Moko pailazoaren berbena: *Parranda-tutiplen*. Kalegoen plazan (euria bada, Maalan).

18:15 Mauxitxa txarangarekin kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

18:00-21:00 Dantzaldia Eguren orkestrarekin eta mozorro lehiaketa. Jubilatuen Biltokian.

20:00-23:00 Mozorro gaubeila. Gaztelekuan.

5 BARIXAKUA

15:00 Mozorro jaia. Gaia: munduko dantzak. Mendaroko Ikastolan.

6 ZAPATUA

Goizean, poteoa.

12:00 Mozorro desfilea Bizi Poza txarangarekin.

15:00 Bazkaria, jokoak eta dantza Djarekin. Izen-ematea: Aitz Beltz tabernan. 1.5 euro. Gaztetxean.

17:30 Diskoteka. Txokolate eta bizkotxo jana Arno Guraso Elkarteak lagunduta. Bost erosketa bono zozketatuko dituzte. Goñati pilotalekuan.

9 MARTITZENA

18:00 Tor magoa. San Agustin aretoan.

**Botika ordutegiak** 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**G
U
A
R
D
I
A
K****09:00 - 22:00**

5 Barixakua ETXEBERRIA

6 Zapatua FERNANDEZ

7 Domeka FERNANDEZ

8 Astelehena YUDEGO

9 Martitzena ORUESAGASTI

10 Eguaztena BARRENETXEA

11 Eguena IBÁÑEZ

12 Barixakua GARITAONANDIA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar)

Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)

Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

I. URTEURRENA**Justina Santos Santos**

2015eko otsailaren 6an hil zen, 88 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuzenetik eskerrak.

Beti izango zaitugu gogoan.

Etxekoak





Iosu Juaristi

Ainhoa Lendinez



Gaur ere euria ari du gurean. Kamioiak blai utzi du autobus geltokian dagoen emakumea. Gaur ere bai. Eta giro gris hori, gandu ahuletan galduta. Astiroago joateko eskatu diot lagunari eta autoaren leihoa pixka bat zabaldu dut. Urteak igaro dira hemendik azkenekoz pasatu nintzenetik. Sei bai, gutxienez. Fabrika usaina. Belar bustiaren usain freskoarekin nahasten den fabrika usain gris hori. Hemengoa naiz ni. Deba ibaiaren kontrako noranzkoan goaz: bost kilometro Elgoibarrera iristeko; bi baino ez Karakate ikusteko. Gure mendietako berdea iluntzen duten pinu beltzak. Azken bidaiari ama bisitatzera etorri nintzen herrira. Iazko udaberria. Euria ari zuen orduan ere. Erruz botatzen baitu gurean. Euria ari duenean norbait negarrez ari dela esaten zidan amak txikitan. Euriak mendietako lore, zuhaitz eta belarrak elikatzen, berdetzen dituen bezala, malkoek gure barrua lasaitzen dutela, eta mina gairitzen laguntzen digutela. Halakoak kontatzen zizkidan amak txikitan, eta sinetsi egiten nion. Gaur ere euria ari du gurean. Martxoak egun bakarra dauka oraindik, neguaren azken txanpa. Eta kilometro baten faltan, udaberria ate joka.

*“Martxoak egun bakarra dauka oraindik,
neguaren azken txanpa”*



Garbiñe del Hoyo Murua

2016eko urtarrilaren 28an hil zen , 48 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara
gogor borrokatu ondoren
ez da erreza izango betetzea
zuk utzitako hutsunea
beti beti gure bihotzean
izango zaitugu.***

Zure familia




II. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela. Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 6, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Laster arte ezpainetan,
utzi gaituzu penetan,
orain gure ametsetan,
bizirik zaude benetan,
zeruko izarretan.***

Zure familia



II. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

***Behar dugunetan ezin gara babestu zure besoetan,
baina badakigu hor zaudela ezkutatuta gure bihotzetan.
Zure irribarrea gogoan, ezin ahaztu eta ezin ikutu.
Zergatik ez zauden gurekin, ezin dugu jasan, ezin dugu ulertu.***

Maite zaitugu

Azkoiti-Elgoibarko lagunak



INAUTERIAK 2016

OTSAILAK 6, ZAPATUA

18:00-19:30 **ATXUTXIKARAOKEA**
2-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Madlako parkean.

19:30-20:45 **KALEJIRA** Mauxitxa txarangarekin.
Erraldoien korparisa, buruhandi eta zezenzikletekin +
mozorroen desfilea. Madlako parkean hasi eta Kalegoen plazara.

21:00-22:00 **GAZTEENTZAKO JOLASAK**
Mauxitxa txarangarekin batera. Giza Eskubide plazan.

0:00-03:00 **ERROMERIA** Bide Batez taldearekin.
Madlako parkean.



ELGOIBAR IZARRA



ELGOIBAR UDALA

KULTURA

elgoibar

bizi-biziKa!